



MADDI SORROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Multinazionalak gero eta nagusiago eta ziurrago

BETI esan da multinazionalak eta berauen interesak defendatzen dituzten *lobbyak* estatu gobernuen gainera daudela. Laburbilduta, ekonomia politikari gailentzen zaio. Eta orain urrats bat gehiago eman gura dute, baldin eta AEBen eta EBren arteko merkatu askeko hitzarmena gauzatzeko bada behintzat.

Jadanik, sekretupean noski, negoziazioak aurrera doaz, nahiz eta azken hila-bete hauetan zerbait mantsotu diren elkar-riketa horiek NSArene espioitza afera dela eta. Halere, berriro ekin diete eta berehala itxiko dute hitzarmena –1998an bezala–, bere azpian dauden desmasiak galgarazten ez baldin baditugu. Izan ere, hitzarmen horrek antzeko aurrekariak baditu. 1998an AMI (Inbertsiotarako Alde-anitzeko Hitzarmena) lantzen ari ziren eta salaketa baten ostean, bertan behera utzi behar izan zituzten akordioak.

Hitzarmen horren arabera, multinazional batek estatu batean inbertsioak egiten bazituen, estatu horretako gobernuak ezin zezakeen enpresen aurkako neurri ekonomiko kaltegarriak hartu. Hori eginez gero, mozkinen galerak kalkulatuko ziren eta estatuko aurrekontuetatik kalte ordaina jasoko zuen. Azken finean zergadunek jasango zuten ordainketa. Zorionez, ez zuen aurrera egin, baina berriro ekin diote.

Hitzarmen honen ondorio onuragarriak ez dugu jende xeheok gehiegi nabaritu, multinazionalen ordea bai. Hori onartu ostean, beraien mozkinak oraindik ziurrago izango dituzte

Oraingo negoziaketek, merkatu librearen dogmapean, AEBetako eta EBko eremua hartzen dute eta izugarrizko onurak erdietsiko omen dituzte bi estatu-erakunde horietako herritarrek. Oroitu behar dugu mexikarrei ere ideia bera saldu zietela 1994an Iparramerikako Merkatu Libreko Akordioa (NAFTA) sinatu zutenean. Orain, ikusi besterik ez dago zein egoeratan dauden, herrialde

horretako pobrezia maila ez baita asko hobetu.

Zertan datza, bada, bi aldeen arteko akordioak? Laburbilduta, AEBetako edo EBko multinazional batek beste nonbait inbertsio bat egiten badu eta herrialde hartzaileak, behin inbertsioak eginda neurri ekonomiko bat hartzen badu eta inbertitzailea “kaltetu”, adibidez zerga handiagoak ezarri zaizkiolako, irabaztetik utzi duen zatia exijituko dio neurri hori hartu duen herrialdeari. Beraz, Eurovegasko Adelson jauna lasai egon daiteke. Orain lortzen baldin badu erretzeko baimena izatea eta hemendik urte batzuetara Espainiako Gobernuak berriro erretzea debekatzen badu, ondorioz galduko dituen mozkinak kalkulatuko ditu epaile batek eta Espainiako aurrekontuek egin beharko diote aurre dirutza horri.

Halaber, epaile horiek ez dira Espainiako epaitegietakoak izango, hitzarmen horrek bere aferetako epaile bereziak izango ditu, estatuaren gainera dauden epaileak eta inork kontrolatuko ez dituenak: multinazionalen izendatuak.

Hitzarmen horren onura ekonomikoak zenbatekoak izango dira? Sinatzearen alde daudenentzat, EBko ekonomia geldoari, motelalditik irteten lagunduko omen lioke. Baina interesatuek finantzatu dituzte egin diren ikerketak eta ordaintzen duenari beti arrazoia eman behar zaio. Aldiz, ikuspegi kritikoagotik egin den beste ikerketa batek dioenez, estatu-erakunde bietako BPG %0,06 (!) haziko omen da; beste batek dio, aldiz, AEBetako eta EBko aberastasuna egun eta pertsona bakoitzeko hiru zentimotan gehituko omen da 2029tik aurrera.

Egitan, hitzarmen horren ondorio onuragarriak ez dugu jende xeheok gehiegi nabaritu, multinazionalen ordea bai. Orain arte zerga ordainketak saihestu badituzte, hitzarmen hori onetsi ostean, beraien mozkinak oraindik ziurragoak izango dituzte.

Horretan ari zaizkigu, sekretupean, EBko gure agintariak. Hori ikusita ez da harrizkoa eurofobia indartuz doala nabarmentzea. ■

